

BILBAO MENDI TRAIL-AREN ARAUDIA

MENDI MARATOI ERDIA (21 km)

1. LASTERKETA kategorian 16 urtetik gorakoek soilik har dezakete parte (2005eko urtarrilaren 1etik aurrera jaioak). Gainera, 18 urte baino gutxiago daukatenek, guraso edo tutorearen baimena bidali behar dute.
2. LASTERKETA kategoria kronometratu egingo da. Txipa lasterkariaren poltsarekin batera emango da.
3. Sailkapena web-orrian argitaratuko da proba amaitzen denean.
4. Hiru anoa-postu egongo dira lasterketaren ibilbidean (7, 10, eta 16.km-etan gutxi gorabehera) eta laugarren bat helmugan. Denak egongo dira ondo seinaleztatuta antolakuntzako pertsonekin. Parte hartzaileen arabera kopuru hau aldatu ahal izango da.
5. Gehieneko denbora ezarri da parte-hartzaileentzat, proba ahalik eta ongien egituratzeko, eta arreta eta segurtasuna ahalik eta onenak izan daitezen. Gehieneko denbora 15:00 artekoa izango da.
6. Erretiratzeko leku bat ere ezarriko da. Leku horretatik helmugara bideratuko dira partehartzaileak. Arduradunek ahalmena izango dute parte-hartzaileak probatik kanporatzeko honako kasu hauetan: probako arauak hausten badituzte, markatutako ibilbidea osatu ez badute, arauzko dortsala ondo ikusteko moduan ez badaramate, antolatzaileen aginduak aintzat hartzen ez badituzte edo gainerako korrikalari, ibilketari edo txirrindulariekiko kirolez kontrako jarrera izaten badute.
7. Xede horietarako, lasterketaren amaieran joango diren pertsonen parte-hartzea aurreikusten du antolakuntzak. Deskalifikatutako parte-hartzaile guztiek kontrol-postu hurbilenean entregatu behar dute dortsala eta proba utzi behar dute antolakuntzako kideen aginduak betez.
8. Taldeka parte hartzea. Taldeka ere parte har daiteke. Horretarako, taldeka izena emateko orria bete beharko da. Taldeko kapitainak soilik bete dezake. Taldeak 3 lagunekoak izango dira (kapitaina eta beste 2 lasterkari). Taldeen sailkapena taldeko kide bakoitzaren denbora guztien batura izango da, eta taldeko kide batek lasterketa amaitu baino lehenago erretiratzen baldin bada, taldeko kide gainerakoak banakako sailkapen orokorrean agertuko dira, baina ez dute saririk jasotzeko aukerarik izango. Era berean, taldekako kategorian parte hartu eta amaitzen dutenek ez dute banakako kategorietan saririk jasotzeko aukerarik izango.
9. Antolakuntzak uneoro zainduko du lasterketako segurtasuna.
10. Osasun-laguntzako eta salbamendu eta sorospeneko zerbitzuak egongo dira lasterketako puntu estrategikoenetan.

11. Parte-hartzaile batek istripua izanez gero, haren lekuko izaten den edonork lagundu egin beharko dio ahal duen neurrian, baldin eta bere segurtasunari eragiten ez badio.

12. Batzorde antolatzaileak ibilbidea aldatzeko edo proba osoa edo zati bat neutralizatzeko eskubidea izango du, baldin eta eguraldi-baldintzek edo beste ezusteko batzuek hala eskatzen badute.

13. Korrikalari bakoitzarena da proba, zirkuitua eta arauak ezagutzeko ardura.

14. Antolakuntzak ez ditu bere gain hartuko probaren aurretik, proban zehar edo probaren ondoren parte-hartzaileek edo ikusleek jasan ditzaketen kalte moral edo materialen gaineko erantzukizunik.

15. Antolakuntza ez dago behartuta diru-itzulketarik edo -konpentsaziorik egitera kirolaria deskalifikatuz gero, proba oso edo zati bat ezabatuz gero edo ibilbidea aldatuz gero.

16. Garrantzitsua da ingurumena zaintzeak duen garrantziaz jabetzea: natura zaintzeari buruzko gizalegezko arauak betetzen ez dituztenak, esaterako zaborra xede horretarako adierazitako lekutik kanpo botatzen dutenak, zigortu eta probatik bidali ahal izango dira.

17. Irudi-eskubidea eta datuak babestekoa. Araudi hau onartzeak esan nahi du parte-hartzaileak baimena ematen diola antolakuntzari bere partaidetza osoa edo zati bat grabatzeko, baimena ematen diola bere irudia erabiltzeko probaren irudia era guztietan sustatu eta hedatzeko (irratia, prentsa, bideoa, argazkia, DVDa, Internet, kartelak, komunikabideak, etab.) eta merkataritza- eta publizitate ustiapenari buruzko eskubide guztiak lagatzen dizkiola dirukonpentsaziorik jasotzeko eskubiderik gabe. Proban izena emate hutsagatik, parte-hartzaile guztiek erabateko baimena ematen dute INNEVENTOren antolakuntzak, bere kabuz edo baimendutako hirugarren erakundeen bidez, beraien datu pertsonalak tratatzeko edo zabaltzeko kirol-, sustapen- edo merkataritza helburuekin. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, parte-hartzaileak eskubidea du fitxategi horietarako sarbidea izateko, horien eduki osoa edo zati bat zuzendu edo ezabatu ahal izateko. Horretarako, legeak xedatutakoaren arabera, idatzizko eskaera bidali beharko da INNEVENTOren egoitza sozialera, hau da, Bilboko Kale Nagusiko 45, 1. solairua.

18. Proba horretan izena emateak araudi hau onartzea eskatzen du, eta erantzukizun orotatik libre uzten ditu antolakuntza, udalak, babesleak eta laguntzaileak edozein gertakariren aurrean.